

**ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE
MINISTERIOAREN "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUAK"
2024ko DEIALDIARI LOTUTAKO EHUⁿ DOKTOREAK
PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIO
DEIALDI APARTEKOA (FPI 2025 APARTEKOA)**

Onuradun eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Ebaluazio-txosten guztiak eta epaimahai ebaluatzaileek egindako esleipen-proposamenak jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak ERABAKI DU emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda web-atarian argitaratzeko agintzea. Zerrenda hori I. eranskinean dago jasota, proiektuaren eta lortutako puntuazioaren arabera antolatuta.

Esleipendunen batek berariaz adierazten badu behin-behinean emandako laguntzari uko egiten diola, proiektuaren barruan hurrenari esleituko zaio, lehentasun-ordenaren arabera. Nolanahi ere, **uko egite horiek 10 egun balioduneko epea izango dute**, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Uko egiteko, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatzi beharko dute, mezuaren gaien "FPI2025-Ukoa" jarriz.

Behin-behinean ukatutako eskaerak egin dituzten pertsonak 10 egun balioduneko epea izango dute, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita **(2026ko martxoaren 25era arte, egun hori barne), alegazioak aurkezteko**. Epe horren barruan, zure eskaerari dagokion ebaluazio-txostena eskatu ahal izango duzue, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatziz, eta "FPI2025-Ebaluazioa" mezuaren gaien adierazita.

Alegazioak aurkezteko, deialdi honetako 7.1 oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberak erabili beharko dira.

Esleipendunei gogorazten zaie aurkeztu diren proiektuan identifikatutako doktorego-programan izena eman beharko dutela, deialdiaren I. eranskinean eta jarraian ageri den taulan jasotzen den bezala (proiektu-kodearen arabera ordenatuta). Interesdunek doktorego-programaren webgunean adierazten den emailara idatzi beharko dute, FPI laguntzaren onuradun direla jakinaraziz eta Tesi-zuzendariaren izena aipatuz.

Referencia	Programa Doctorado
MCIU-NO24/P67	Biología Molecular y Biomedicina
MCIU-O24/P35	Ingeniería Mecánica
MCIU-O24/P79	Derechos Humanos, Poderes Públicos, Unión Europea: Derecho Público y Privado
MCIU-O24/P102	Ingeniería Mecánica

Leioan, 2026ko martxoaren 10a.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA

Ikerketa Errektoreordetza